

Getxo >MEETING<



Urtarrilaren 21 2021ean pentsatu: urteko lehenengo Getxo MEETING-aren laburpena.

Plan estrategikoa egitea pentsatzeko, hau da, une honen eta urte amaieraren arteko bidea marrazteko, lehenik eta behin bi gai hartu behar dira kontuan:

- Eremuaren mapa egitea ez da bidaia bera. Bidaiari ekin ostean posible da galtzea edo bidean espero ez genituen gauzak aurkitzea. Horra urteko helburu kualitatiboak, eta ez soilik kuantitatiboak, argi izatearen garrantzia.
- Oso beharrezkoa da, halaber, enpresaren eta ekintzailearen printzipioekin konektatzea, horiek baitira egunero jaikitzeo arrazoia, enpresa muntatzearen arrazoia. Nola hobetzen duzu pertsonen edo inguruaren bizitza? Zeintzuk dira sustatzailearen printzipioak, enpresarekin konektatzen dutenak? Hori argi izateak indarra eta orientazioa eskain dezake kanpo-inguruabarrak aldatzen diren kasuetarako.

Pentsatu beharreko gai bat da 2021erako helburu hirukoitza: Autozaintza, diru-sarrerak eta proiektzioa.

- o Autozaintza: Nola gustatuko litzaizuke amaitzea urtea zure osasun mentalari, emozionalari eta fisikoari dagokionez? Pentsatu nola txerta ditzakezun ohitura osasungarriak zure egunerokoan, bermatu ahal izateko zure enpresaren aktibo nagusia prest dagoela etorriko den guztirako.

- Diru-sarrerak: Ondo dago gastu finkoak murrizteaz hausnartzea, baina pentsatu, batez ere, zer egin dezakezun diru-sarrera gehiago izateko.
- Posizionamendua: Zer egin herritarrek zuk nahi duzun bezala ikus zaitzaten. Bestela esanda, zein kontzeptu, zerbitzu edo hitzekin lotzea nahi duzun. Aurtengo komunikazio plana egiteko balio izango dizu.

Getxolanen doako aholkularitza eskaintzen zaie proiektua abian jartzen diharduten pertsoneri nahiz jada martxan dauden enpresa edo autonomoei, plan komertzialerako, marketinerako eta beste gai garrantzitsu batzuetarako. Informa zaitez 94 466 01 40 telefono-zenbakian.